



HEZKUNTZA SAILBURUAREN AGINDUA, UNIBERTSITATE TITULU OFIZIALEN PROPOSAMENEI BURUZKO UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KOORDINAZIOKO ZUZENDARITZAREN DERRIGORREZKO TXOSTENA EMATEKO PROZEDURA ARAUTUKO DUEN IZAERA OROKORREKO XEDAPEN BAT EGITEKO ALDEZ AURREKO KONTSULTA EGITEN DUENA.

---

Irailaren 28ko 822/2021 errege dekretuak, unibertsitate-irakaskuntzen antolaketa eta beraien kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituenak, 26.3. artikuluan xedatzen duenez, "autonomia erkidegoek, unibertsitate-programazioaren eta haien lurralde eremuko titulazio ofizialen mapa antolatzearen arloan dituzten eskuduntzez baliatuta, derrigorrezko txosten bat emango dute, unibertsitate-titulu ofiziala ezartzeko premiari eta ezartze horren bideragarritasun akademiko eta sozialari buruzkoa eta egiaztatze prozedurari hasiera eman aurretik".

Aipatutako 26.3. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, unibertsitate-titulu ofizialen proposamenei buruz Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzak derrigorrean eman beharreko txostena emateko prozedura arautuko duen agindua tramitatzen da.

Urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearenak, 133.1. artikuluan xedatzen duenez, arau-xedapenaren proiektu bat egin aurretik kontsulta publiko bat gauzatu da administrazio eskudunen web atariaren bidez. Kontsulta publiko horren bidez etorkizuneko arauak gehien eragingo dien pertsona eta erakunde adierazgarrien iritzia eskatuko da.

Ondorengo alderdiei buruzkoa izan beharko du kontsultak:

- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- Onartzearen premia eta egokitasuna.
- Arauren helburuak.
- Izan daitezkeen irtenbide alternatiboak, arautzaileak eta ez-arautzaileak.

2017ko abenduaren 12ko Gobernu Kontseiluaren akordioan izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura aplikatzeari buruzko argibideak onartzen dira. Besteak beste, alde aurreko kontsultaren tramitea betetzeari buruzko argibideak agertzen ditu akordioak eta tramite hori izaera orokorreko xedapena sustatzen duen organoak egin ahal izango duela ezartzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan iragarri; gainera, informazio berbera Legegune-an jarri beharko da, gardentasunari buruzko legeriaren ondoriozko publizitate aktiboaren eginbeharrak betetzearen ondorioetarako.

Ondorioz, kontsulta publikoaren tramitea:

- Etorkizuneko arautze horrek eragin ahal dien instituzio publikoei, pertsona fisikoei eta erakunde edo elkarteei irekita dago.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web atarian publikatuko da.
- 10 laneguneko epe bat ezartzen da, eragindako instituzioek, herritarrek eta beren erakundeek nahi dituzten proposamen edo oharrak aurkez ditzaten.





Beraz, kontsulta publikoaren tramite hori da une hauetan, aurreikusitako legezko eskemaren arabera, egiten dena. Gainera, arau-proiektua egin aurretik eta abenduaren 22ko 8/2003 legeak, izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedurarenak, 4. eta 5. artikuluetan arautzen duen hastapen-fasearen barruan gauzatzen da.

Otsailaren 23ko 71/2021 dekretuak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak, ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz,

#### EBAZTEN DUT:

Lehena.- Kontsulta publikoaren tramitea egitea unibertsitate-titulu ofizialen proposamenei buruz Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzak derrigorrean eman beharreko txostena emateko prozedurari hasiera eman aurretik.

Bigarrena.- Herritarrek eta arauak eragiten dien erakundeek hamar laneguneko epea dute agindu horretan planteatzen diren gaiak buruz beren iritziak helarazteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web atarian argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Jokin Bildarratz Sorron  
Hezkuntzako sailburua